

IBAIONDO HEZIKETA ZENTROKO KIROL ESKUHARTZEA

Mugerza-Salegi, Ainhoa, Zubizarreta-Zuzuarregi, Ibai, Zubizarreta-Zuzuarregi, Ekain, Martinez-Merino, Nagore*.**

*Euskal Herriko Unibertsitatea- EHU/UPV

**Université Paris Ouest Nanterre

Harremanetarako helbide elektronikoa:

ibaizuzu@gmail.com, ainhoamugerza@hotmail.com

Arloa: Gizarte kirola eta kirol dutako gizarteak

Laburpena:

Zumarragako Ibaiondo Heziketa zentroan, uztailean, Jarduera Fisikoan eta Kirol Zientzietan Lizentziatutako lau lagunek, kirol eskuhartzea egin genuen bertako 12 gazteekin. Gauzatutako saioetan, joko eta jolas ezberdinez gain, hainbat kirol modalitate landu genituen: rugby tag-a, boleibola, slackline-a, pala gurpildun aulkian, saskibaloia gurpildun aulkian eta waterpoloa. Saiotan memoriarik gabeko jolasak proposatu genituen, emaitzari garrantzia kendu eta gazteak jardunean ongi pasatzea bultzatuz. Gazteek gogotsu parte hartu zuten proposatutako jardueretan, eta zailtasunen aurrean, elkar lagundu eta animatu zuten.

Lehen saioaren hasieran, saioez espero zutenaren inguruan galdetu genien eta erantzun gehienak ondo pasatzea eta liskarrik ez edukitzea zirela aipatu ziguten. Azken saioaren amaieran, saioen ebaluazioa egin zen idatzizko galdeketa baten bidez eta ondoren taldean saioen edukia eta hauetan edukitako sentsazioak baloratu ziren. Aipagarria da denek oso ondo pasa zutela eta beraien tristura azaldu zigutela proiektuaren amaieragatik, errepikatzeko gogoia zutela erakutsiaz.

Gako-hitzak: Espetxea, gazteak, kirola, esku-hartzea, birgirzartratzea.

Sarrera

Ibaiondo Heziketa Zentroa, Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasun maila goreneko adin txikikoen zentroa da. Bertan, delitu edo arau hauste bat egin eta beronen zigorra ordaintzera kondenatuta aurkitzen diren gazteak bizi dira, guztiak gizonezkoak. Batzuentzat bertan igaro beharreko aldia laburra izan daitekeen arren, beste batzuen kondenak 10 urtekoak izatera heltzen dira. Ibaiondo Heziketa Zentroa espetxe batekin alderatuz gero, ezberdintasun handiak aurki daitezke, baina baita antzekotasun handiak ere: hesiez inguratua egotea, segurtasun neurri zorrotzak izatea, bisitak zein deiak mugatuak izatea eta azkenik, bertan egotera zigortuak egotea. Halaber, gazte hauen birgirzartratzea helburu, hezitzaile eta irakasle kopurua altua da espetxeetako ratioaren aldean. Honek gazteen jarraipena sakonagoa eta pertsonalizatuagoa egitea ahalbidetzen du.

Hainbat ikerketen arabera, askatasunik gabeko egoeretan berebiziko garrantzia duen jarduera da kirola. Espetxealdiaren kalteak leundu eta euren osasunean ekarpen positiboa egiten duela antzematen da (Meek, 2013). Gainera, bidelagun gisa jokatu (Martinez-Merino et al., 2015) eta errehabilitazio prozesuan ere lagun dezake (Gallant, Sherry eta

Nicholson, 2015). Hainbat ikerketen arabera, esku-hartzeak egitea beharrezkoa da adin txikikoen kasuan, batez ere espetxera itzul ez daitezen. Horretarako kirola tresna motibagarri eta interesgarria gertatzen da (Meek eta Lewis, 2013).

Literatura zientifikoak dioena aintzat harturik, gure egitasmoren xede nagusia kirola edo jarduera fisikoa tresna gisa erabiliz, euren egunerokotasunean eragin eta bizi estilo aktibo eta osasuntsua sustatzea da, beti ere, talde lana, errespetua eta konfiantza oinarritzat izanik.

Parte-hartzaile motak eta kopurua

Ibaiondoko Heziketa Zentroan orotara 33 gazte zeuden esku-hartzea burutu genuenean. Zentroko zuzendari eta langileek aukeratu zituzten gure saioretan parte hartuko zuten gazteak honako irizpideen baitan: bateragarritasuna, gazteen portaera, jarduera fisikoa edo kirolarekiko jarrera eta kondenaaren iraupena.

Ibaiondoko segurtasun neurriak zirela eta, talde bakoitza gehienez sei kidekoa izan zen. Parte-hartzaile guztiak adin txikiko zentroan baldin bazeuden ere, batzuk hemezortzi urtetik gorakoak ziren, baina oro har, parte hartu zuten gazteen adina 15-20 urte bitartekoa izan zen. Guztiak mutilak ziren, eta jatorri zein kultura ezberdineko gazteak zeuden.

Azpitarratu nahiko genuke, Ibaiondon aurkitzen diren gazteen profila ez-ohikoa iruditu daitekeen arren, beren adineko beste edozein gazte bezalakoak direla saioretan parte hartu zuten gazteak. Finean, euren bizitzako momentu batean arrazoi batengatik edo bestearengatik, gizarteko arauak hautsi, eta arau-hauste horren zigorra pairatzen baino ez dira ari. Egia da halaber, gehiengoak botikak hartzen zituela eta parte hartzaileetako batek urritasun mentala zuela. Inguru sozio-afektiboari dagokionez, arrisku edo bazterketa sozial arlotik datozen gazteak diruditen arren, konfidentzialtasun arrazoiengatik ez dugu hori ziurtatu duen daturik izan.

Instalazioak

Ibaiondo Heziketa zentroko instalazioak erabili ziren esku-hartze hau aurrera eramateko. Zentroan, kirol instalazio ezberdinak daude, gazteei aukera ezberdinak eskaintzen dizkietenak. Zehazki, hauek dira kirolerako erabiltzen diren espazioak: igerileku bat, frontoi estali bat, harrizko kirol-anitzetarako zelai bat (40x20metro inguru) eta gimnasio itxi bat. Gimnasioan, makinaz gain, boleibolerako sarea dago. Kirol-anitzetarako zelaian berriz futboleko bi ate eta saskibaloiko bi saski daude.

Erakunde parte-hartzaileak

Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa

Ibaiondo Heziketa Zentroa

Irizar Enpresa

Giza baliabideak

Jarduera Fisikoan eta Kirol Zientzietan Lizentziatutako lau pertsonak proiektua burutu eta aurrera eraman zuten eskuhartzea.

Material baliabideak

Saio bakoitzerako beharrezko materiala Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioaren eta Mutrikuko Eskola Kirolaren bitartez lortu zen.

Esperientziaren deskribapena

Zentroaren interesen eta aukeren zein federazioaren ahalmenaren arabera diseinatu genuen esku-hartzea. Uztaileko esku-hartzea, proiektu pilotu gisa aurkeztu zen, egitasmu hau ordea, luzera begirako logika baten baitan kokatzen da. Logika honek, zentroan estrategia berri baten aplikazioari erantzuten dio, zehazki, kirol edo jarduera fisikoa sustatzeaz gain, birgirzartratze politika indartzea xede duena.

Frantziako zenbait espetxetan martxan den modeloa aintzat harturik, hiru faseetan oinarritzen den kirol birgirzartratze plana aurkeztu genien Ibaiondoko zuzendari eta langileei. Zentroak berak eramaten duen progresio logika jarraituz diseinatu genuen plana. Izan ere, puntuazio sistema baten bitartez gazteek zenbait betebeharrak osatu ostean, fasea aurreratzea lortzen dute, fase bakoitzean askatasun eta pribilegio maila handiagoa lortuz.

Gurera etorri, kirol arloan hiru fase bereizi genituen. Lehenengo fasean, gaztearen azterketa bat egin eta kondena amaitzean bizitoki izango duen herriko kirol klub edo elkarteak identifikatuko dira. Jarraian, bertako jarduerara zuzenduko den entrenamendu plana egingo zaio. Gazteak plana betetzeko konpromisoa hartu beharko luke. Entrenamendu hauek, Federazioko teknikari batek gainbegiratu lituzke. Bigarren fasean, bere herriko klub edo elkartearen kide bat joango litzake zentrori berarekin entrenatu eta lehenengo kontaktua egitera. Hirugarrenean, aldiz, gazteak irteera baimenak baliatuko lituzke herriko klub edo elkartera joan eta bertan beste kideekin batera jarduteko.

Era honetara, kirolaren bidez gazteei espazio seguru bat eskaini nahi zitzaien euren irteera ordua heltzen denerako. Batetik, kirolak edo jarduera fisikoak heziketarako balio positibo asko dituelako eta osasuntsua delako. Eta bestetik, espazio seguru eta osasuntsu bat izanez gero, gazteen berrerortze aukerak gutxitu daitezkeela uste dugulako.

Aipatutako egitasmoari ekin aurretik, proiektu pilotu gisa burutu zen uztaileko esku-hartzea. Esku-hartzea, 2016ko Uztailean burutu zen. Hilabete hartan, astean bi egunez (astearte eta ostegun) arratsaldeko 17:30tatik 19:15etara bi gazte talde ezberdinekin zortzi saio osatu genituen, talde bakoitzarekin lau saio ezberdin eginez.

Saioak diseinatzerako orduan ere hainbat irizpide izan genituen kontutan. Lehen, oposizio-kooperazio jardueren arteko oreka bat bilatzea eta oposizio gradua pixkanaka igotzea. Honi lotuta, gazteen arteko kontaktuari ere erreparatu genion eta hau ere modu progresiboan igotzea erabaki genuen. Horrez gain, ezagutu zitzaketan kirol praktika ohikoak alboratu eta ezohikoago batzuk jarri ziren praktikan. Azkenik, memoriarik gabeko jarduerak sustatuko genuen, batez ere galtzaile/irabazle rol argirik ez dutenak. Saio guztietan taldekideen arteko elkarlana bultzatu zen.

Launa saio izan ziren: Lehengoan jolasak eta rugby egokitua probatu zituzten; bigarrenean boleibola eta *Slackline*-a; hirugarrenean kirol egokituko sentsibilizazio saio bezala, palan eta saskibaloian jardun zuten gurpildun aukian; laugarrenean igerilekuan ur-jolasak eta waterpolo egin zituzten.

Balorazioa eta ondorioak

Eskuhartzearen hasieran saio hauen inguruan zer espero zuten galdetu zitzaien, eta erantzun gehienak, ongi pasatzea, modulutik atera ahal izatea, eta euren artean arazorik ez edukitzea izan ziren.

Gure saioetan zehar ez zen inolako liskar edo haserrikerik egon jarduleen artean, giro osasuntsu baten aritu ginen saio guztietan, umoreari tokia utziz ongi pasatzea zelarik xede nagusia. Hala ere, kanpo faktore batzuek eurengan eragina izan zutela sumatu genuen, hala nola familien bisitek, medikazioek edo kondenen luzapenak. Egoera horretan aurkitu ziren gazteen jarrera ezberdina izan zen beste egunetakoaren aldean, baina oro har gazte guztiek positiboki hartu zuten parte saioetan.

Saioen inguruko sentsazio zein iritziak partekatzeke unean, gazteek arazoak alboratzen eta une batez non zeuden ahazten laguntzen ziela azpimarratu zuten. Egun txar baten ostean, nola haserreak hala emozio negatiboak askatu eta saioa amaitzean modulura erlaxatuago iristen zirela adierazi zuten. Euren artean kolaborazio maila altua ikusi genuen saioetan, eta elkarlana zein errespetua sutatzeko balio izan zutela erantsi zuten.

Azkenik, ongi programatutako eta erregularri burututako kirol eta jarduera fisikoa tresna garrantzitsua eta baliagarria dela ikusi dugu, gazte hauengan aisialdi aktibo eta osasun ohiturak barneratzeke orduan. Birgizarteratzeaz ari garen heinean ordea, kirola gazte hauen birgizarteratze prozesuko zutabe bat baino ez dela argi dugu. Beste hainbat alderdi hartu behar dira kontuan birgizarteratze arrakastatsu bat lortu nahiez gero, hala nola inguru sozioekonomiko zein afektiboa. Zutabe guztietan arreta ipini behar den arren, kirolaren zutabearen indar eginez gero, birgizarteratzearen arrakasta-itxaropena altuagoa

izan daitekeela uste dugu. Espazio osasuntsu eta seguruen eskaintzaren bitartez, arau-hausteen erakargarritasun eta arrazoi maila txikiagoa izan daitekeelakoan gaude eta, beraz, gazteek Ibaiondon izandako zigor bizipena berriz ez errepikatzea edo, are urrunago, benetako kartzela batera inoiz ez heltzea.

Amaitzeko esan nahiko genuke, harresiez inguraturiko eta gizartetik urrun dauden instalazioak izan arren, gizartearen parte diren heinean beraian arreta eta interesa jartzea guztion erantzukizuna dela. Ezin baitugu ahaztu etorkizun batean gurera itzuliko direla, eta erraldoiak diren harresi horiek, leunagoak suerta daitezkeela guk geuk apurtuz gero. Horretarako harresi zein instalazio hauen inguruan jendartean hitz egitea, hausnartzea eta eztabaidatzea ezinbestekoa da, hori baita harresiak apurtzeko lehen urratsa.

Gehiago ezagutzeko estekak

<http://www.sportanddevelopment.net/en/connect/userprofile.cfm?14539/Teenage-prisoners-rehabilitated-using-sport-in-Spain>

Erreferentziak

Gallant, D., Sherry, E., eta Nicholson, M. (2015). Recreation or rehabilitation? Managing sport for development programs with prison populations. *Sport management review*, 18(1), 45-56.

Martinez-Merino, N., Martín-González, N., Usabiaga-Arruabarrena, O., eta Martos-García, D. (2015). Jarduera fisikoaren rola emakume presoen bizi kalitatean. Euskal Autonomi Erkidegoko bost preso ohien espetxeratze aldiko ongizatearen inguruko bizipenak. *Uztaro: giza eta gizarte zientzien aldizkaria*, (95), 99-115.

Meek, R. (2013). Sport in prison: Exploring the role of physical activity in correctional settings (28). Routledge.

Meek, R., eta Lewis, G. (2013). The impact of a sports initiative for young men in prison: Staff and participant perspectives. *Journal of Sport & Social Issues*.